BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

4906

EBAZPENA, 2013ko urriaren 28koa, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendariarena, euskal autonomiari buruzko idazlanetarako «Jesús María Leizaola 2013» sariko epaimahaiaren ebazpenaren berri ematen duena.

Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak Euskal Autonomiari buruzko idazlanetarako «Jesús María Leizaola-2013» sarirako deia egin zuen 2013ko apirilaren 5eko ebazpenaren bidez (apirilaren 22ko EHAA, 76. zk.). Horrekin bat etorriz, eta epaimahaiak bildu eta ebazpena eman ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

«Jesús María Leizaola-2013» sariaren epaimahaiak emandako ebazpenaren berri ematea. Honako hau da:

1.– «Jesús María Leizaola-2013» saria Gemma Martínez Bárbara andereak aurkeztutako «Armonización fiscal y poder tributario foral en la Comunidad Autónoma del País Vasco» lanari eta Saioa Artiach Camacho andereak aurkeztutako «Aspectos sustantivos y procesales del contrato de arrendamiento rústico en el derecho civil de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa de los siglos XVI a XIX. Un medio para la gestión del patrimonio de la persona» lanari ex aequo ematea.

2.– Ebazpen hori interesatuei jakinaraztea.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 28a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA TERESA IRURETAGOYENA IBARGUREN.